

Arabako diputatu nagusiak eta Gasteizko alkateak onartezintzat jo dute Itzulia Women-en antolatzaileek moda gisa baloratzea emakumeen probak antolatzeko bultzada

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzak 13a. Arabako diputatu nagusiak, Ramiro Gonzalezek, eta Gasteizko alkateak, Gorka Urtaranek, Julian Erasok, Euskadiko Txirrindularitza Erakundearen (OCETA) presidentek, emakumeen kirolari emandako bultzada modatzat jotzea onartezina dela azpimarratu dute. “Bi erakundeek defendatutako balioen aurka doa, kirolaren bidezko berdintasuna gure politiken egiturazko ardatz gisa hartzen baitugu”.

Bi erakundeetako ordezkariak Itzulia Women-en lehen etaparen irteeran parte hartu dute gaur goizean. Lasterketa horrek munduko txirrindulari onenak ekarri ditu Euskadira, eta Gasteiz eta Bastida arteko etapa batekin estreinatu da.

“Horrelako ekitaldiek arrakasta handia dute emakumeen kirola merezi duen lekuan jartzeko konpromisoan. Lasterketa honek erreferente onenak dakarzkie gure gazteei, ez da moda bat, berdintasunaren eta gure gizartearen garapenaren aldeko apustua baizik”, diputatu nagusiak azaldu duenez.

“Women Itzuliaren zuzendariak esandakoa akatsa izan dela espero dut. Jakinaren gainean badago, erabat onartezina da, eta ez du lekurik gurea bezalako gizarte moderno eta anitz batean. Edozein arlotan, baita kirolean ere, berdintasunaren aldeko apustuak eta defentsak sendoa izan behar du. Eta zentzu horretan dugun konpromisoa zalantzarik gabekoa da”, adierazi du Gorka Urtaran alkateak.

Gorka Urtaranek eta Ramiro Gonzalezek uste dute Itzulia Women-en antolakuntzak lehenbailehen zuzendu behar dituela bere hitzak, lasterketa berdintasunaren bidean benetako tresna izan dadin. Udalak eta Aldundiak emakumeen Itzuliaren aldeko apustua egiten dutenean, benetako berdintasuna lortzeko kirolaren bidez ere iritsi behar dela uste dute.